



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko azaroaren 15a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa-ingurunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko duten berariazko zenbait ekintza jaso ditzan Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan egin dezan memoria historikoaren europar kultura komun bat sortzeko. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko Iruzur Fiskalaren Behatokia sortzea bultzatzea dezan. Mozioa erretiratzea (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskarari buruzko Legeak jasotzen dituen aukera guztiak gara ditzan, nafar herritar guztien hizkuntz eskubideak ziurtatzeko. Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak ezetsi egin du (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu 2019ko Diabetesaren Nazioarteko Egunaren inguruko ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programako eskabideen izapidetzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Lizarrako Udalak Oncineda dela-eta aurkeztu zuen errekurtsioa ezetsi izanari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, atzerriko kapitalak enpresa-sektorean duen garrantzia gutxitzeko inbertsio-funts bat sortzeari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean erizaintzako profesionalek farmakoak agintzeari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Aurizko Bunkerren Ibilbideko bisita-zentroari buruzkoa. Jabi Arakama Urtiaga jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, Siemens Gamesa enpresan 109 kaleratze iragarri izanari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Erripagaina eta Berrikuntzaren Hiria lotuko dituen pasabide bat eraikitze proiektuari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, genero indarkeriako kasuetan familientzako elkarguneak erabiltzeko modua dela-eta Arartekoak gomendatzen duen berrikuspina egiteko ekintzei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (11. or.).
- Galdera, LGTBI+ pertsonentzako berdintasun sozialeko politikak sendotze aldera Nafarroako Berdintasunerako Institutuak sortutako zuzendariordetzari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (11. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroak zer parte-hartze izanen duen Europar Batasunaren Kulturarteko Erregioen Europako Sarean, xenofobiari aurre eginez gizarteratzea eta aniztasuna aldezte aldera. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (12. or.).
- Galdera, familientzako elkarguneei buruzkoa, genero indarkeriako kasuak direla eta. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (12. or.).
- Galdera, 2019ko uztailaren 8tik 2019ko abuztuaren 7ra bitarte AP-15eko Imarkoango bidesaria kentzeak ekarri zuen kostuari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, DAVID programari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Toki Ogasunen Funtzari atxikitako diruzaintzako gerakinari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, landa-eremuko zaharren artapenerako eredu esperimental berriari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Automobilismo Federazioak eskatu duen lehiaketa-ibilgailuen Azterketa Teknikoaren zerbitzuari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Zizur Nagusiko irteeran, Iruñerako norabidean, gertatzen diren zirkulazio arazoei buruzkoa. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea (15. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zer etxebizitza-aukera eskainiko zaizkien beren etxebizitzak utzi beharko dituzten Castejongo 38 familiei. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean izapidetzea (16. or.).
- Galdera, eskola-kontzentrazioaren ondorioz ikasleek eragindako gastuak finantzatzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (16. or.).
- Galdera, ibilgailu gidaridunen arloko estatuko legedia garatze aldera Gobernuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriaren behin betiko kostuari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, elikagaien artisau-produkzioei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa-ingurunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko duten berariazko zenbait ekintza jaso ditzan Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita landa-ingurunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko duten berariazko zenbait ekintza jaso ditzan Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua berdintasunerako eta sexuan oinarritutako bereizkeriarik ez pairatzeko eskubidea aldarrikatzen du. 9.2 artikulua, berriz, botere publikoen betebeharrak gisa jasotzen du baldintzak sustatzea gizabanakoen eta taldeen berdintasuna errealia eta eragin-duna izan dadin.

Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoaren 30. artikulua

ere bilatzen du egiazko bihurtzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, besteak beste nekazaritzaren arloan.

Azkenik, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legeak ezartzen du, 14. artikuluan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako plan estrategiko bat eginen dela, zeinetan helburu eta neurri transbertsalak ezarriko baitira, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egiazkoa bermatzeko aplikatu beharrekoak.

Halaber, landa-ingurunean emakumeak ahalduz buruzko 28. artikulua ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak genero-ikuspegia txertatuko du landa garapenerako jarduketetan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Landa-ingurunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko duten berariazko zenbait ekintza jaso ditzan Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoan, zeina Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera taxutzen ari den; hartara, gutxienez honako jarduketa-ardatz hauek garatuko dira:

1.- Emakumeak eta gizonak nekazaritza-ustategietan titularkideak izan daitezen sustatzea, halaber ezarpen eraginkorra sustatuz 35/2011 Legearentzat, nekazaritzako ustategien titulartasuna partekatzeari buruzkoa den horrentzat.

2.- Jarduerak sustatzea enplegua sortu eta landa ingurunean emakumeek enplegu bat lortzea aldezteko.

3.- Landa inguruneko emakumeen prestakuntza bultzatzea.

4.- Generoko arrakala digitala deuseztatzen laguntzea eta landa inguruneko emakumeek informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako sarbidea izan dezaten bultzatzea.

5.- Emakumeek enpresen eta elkarten zuzendaritza organoetan parekidetasunez parte har dezaten arautzea.

6.- Emakumeek eta gizonek nekazaritza-erakundeen erabakitze-organoean ordezkari-tza parekidea izan dezaten sustatzea.

7.- Landa-eremuko emakumeen lana ikusgai egiteko aukera ematen duten sentsibilizazio ekintzak abiaraztea.

8.- Familia eta lana bateragarriak izan daitezen sustatzea, haurrei, zaharrei eta mendetasuna duten pertsoneri laguntzekoak diren hurbiltasuneko sareen eta gizarte zerbitzuen bidez.

9.- Indartzea emakume ekintzaileen enpresa-ekimenak eta emakumeek sustatutako nekazaritza- edo abeltzaintza-garapeneko jarduerak.

10.- Berariazko ekintzak egitea, landa-ingurune-ko genero-indarkeria ekiditeko.

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabeyen

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lan egin dezan memoria historikoaren europar kultura komun bat sortzeko.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita lan egin dezan memoria historikoaren europar kultura komun bat sortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu Europako Parlamentuaren

2019/2819 Ebazpena, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen baitu lan egin dezan memoria historikoaren europar kultura komun bat sortzeko.

Gaur Europar Batasuna osatzen duten lurraldeetan, ezkerreko nahiz eskuineko diktaduren eta totalitarismoen gorakadak zedarritu zuen iragan mendea. Gure herrialdeak berak, Espainiak, ia 40 urtez pairatu zuen Franco jeneralaren diktadura. Europako gainerako herrialdeetan, nazional-sozialismoak eta komunismo estalinistak mundu osoan milioika biktima eragin zuen gerra bat piztu zuten. Alemania naziak eta bere aliatuek europar juduen sarraskia antolatu zuten, eta halaber erail zituzten milaka eta milaka ijito, homosexual, aurkari politiko, gerrako preso eta herritar herrialde okupatueta. Sobiet Batasunak, berriz, milioika pertsona hiltzea ekarri zuten goseteak eragin zituen, ankerki erreprimitu zuen oposizio politiko oro, gerrako milaka eta milaka presoren heriotza ekarri zuen eta Europako hainbat lurralde okupatu zituen, eta horietan denetan kideko diktadura komunista ezarri zituen, Berlingo harresia erori zenean soilik desagertu zirenak.

Iragan irailaren 19an, Europako Parlamentuak 2019/2819 Ebazpena onetsi zuen, europar memoria historikoak Europar Batasunaren etorkizuneko duen garrantziari buruzkoa. Ebazpen horretan nabarmentzen zenez, Europar Batasunean "beha-

rrazkoa da memoria historikoaren kultura komun bat, erregimen faxisten eta estalinisten krimenak nahiz iraganeko bestelako erregimen totalitario eta autoritarioenak arbuatuko dituen”.

Helburua zen, biktimei omenaldia egiteaz gain, “erresilientzia areagotzea demokraziak bizi dituen mehatxu modernoan aitzinean”. Europako Parlamentuak, ildo horretan, memoria komun hori Europaren batasunari berari begira eta bere etorkizunari begira zeharo garrantzitsua dela azpimarratu zuen.

Erabaki proposamena

1) Nafarroako Parlamentuak bere egiten du europar memoria historikoak Europaren batasunerako duen garrantziari buruz Europako Parlamentuak 2019ko irailaren 19an onetsitako Ebazpena (2019/2819).

2) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abuztuaren 23a Estali-

nismoaren eta Nazismoaren Biktimen Oroimenezko Europako Eguna izan dadin.

3) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan egin dezan, Espainia eta Europako gainerako erakundeekin koordinatuta, memoria historikoaren europar kultura komun bat sortzeko, oinarritua zorroztasunean, tolerantzian, era guztietako totalitarismo eta erradikalismo erlijioso eta politikoen errefusean, berradiskidetzearen bilaketan eta humanismo nahiz demokraziaren balioen defentsan.

4) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aldeztu ditzan Europar Memoriaren eta Kontzientziaren Plataformaren jarduerak eta horietan parte har dezan, Europako Parlamentuak egindako eskariarekin bat, eta kudea dezan Nafarroako Memoriaren Institutua plataforma horri atxikitzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko Iruzur Fiskalaren Behatokia sortzea bultza dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteak eta Ezkerreko-Ezkerra Talde Mistoak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen

Nafarroako Foru Komunitateko Iruzur Fiskalaren Behatokia sortzea bultza zezan, eta 2019ko urriaren 11ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/MOC-00055).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Euskarari buruzko Legeak jasotzen dituen aukera guztiak gara ditzan, nafar herritar guztien hizkuntz eskubideak ziurtatzeko.

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak, 2019ko azaroaren 8an egindako bileran, honako mozio hau ezetsi egin du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Euskarari buruzko Legeak jasotzen dituen aukera guztiak gara ditzan, nafar herritar guztien hizkuntz eskubideak ziurtatzeko”. Mozioa

Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztu zuen eta 2019ko azaroaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu 2019ko Diabetesaren Nazioarteko Egunaren inguruko ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du 2019ko Diabetesaren Nazioarteko Egunaren inguruko ospakizunarekin, eta urdinez argiztatuko du bere egoitzaren fatxada heldu den azaroaren 14an.

2. Nafarroako Parlamentuak erakunde eskudunak premiatzen ditu diabetes gaixotasunari aurrea hartzeko politikak sustatzen jarrai dezaten.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela neurriak hartzea gaixoei eta profesiona-

lek diabetesari buruzko egiazko hezkuntza izan dezaten.

4. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du diabetesa sendatzeko ikerketa sustatzeko neurriak bultzatzen jarraitzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela diabetesaren ikusarazpena sustatzea “Diabetesa ikusaraz ezazu” kanpaina bezalako neurriekin, eta ANADik egun hauetan Diabetesaren Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatu dituen jarduerak babesten ditu” (10-19/DEC-00073).

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programako eskabideen izapidetzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programako eskabideen izapidetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Aurreko Gobernuak EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programa ezarri

zuen. EmanZipa prestazio bermatu bat da, ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzeko 23 urtetik 30 urtera bitarteko gazteei, eta 3 urtez luza daiteke gehienez ere.

Programa hori luzatu eta hobetu ahal eta behar den arren, zifrek erakusten dute gazteek begi onez hartu dutela eta beharrezkoa dela: 1.988 eskabide aurkeztu dira 2019ko irailaren 1era bitarte, eta horietatik 1.554 onartu dira.

Eskabide horiek izapidetzeko, posta elektronikoa bat da eskatzaileen eta administrazioaren artean egun dagoen elkarrizketa-bide bakarra.

Ziur dakigu eskabidea egiten duten gazteen artean nahasmena sortzen duela kontsultak egiteko edo zalantzak argitzeko elkarrizketa-bide bakarra posta elektronikoa izateak, izapideak egiteko epeak luzatzen baitira.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik telefonoren bat edo informazio presentzialeko bulegoren bat ipintzeko, EmanZipa-Nafarroan gazteei emantzipatzen laguntzeko programako eskatzaileen zalantzak eta kontsultak argitzea ahalbidetuko duena eta izapidetzea azkartuko duena?

Iruñean, 2019ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Lizarrako Udalak Oncineda dela-eta aurkeztu zuen errekurtsua ezetsi izanari buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako Udalak Oncineda dela-eta aurkeztu zuen errekurtsua ezetsi izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak zer balorazio egiten du Oncineda dela-eta Lizarrako Udalak aurkeztu zuen errekurtsua ezetsi izanari buruz, zeinaren ondorioz 1.715.145 euro ordaindu behar baititu?

Iruñean, 2019ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, atzerriko kapitalak enpresa-sektorean duen garrantzia gutxitzeko inbertsio-funts bat sortzeari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, atzerriko kapitalak enpresa-sektorean duen garrantzia gutxitzeko inbertsio-funts bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua lanean ari da inbertsio-funts bat sortzeko, nolabait gutxitzearren atzerriko kapitalak enpresa-sektorean duen garrantzia.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Departamentu horretako kontseilariari:

Departamentuak zer urrats egin du funts hori sortzeko, zer eredu ari da baliatzen eta zeintzuk izanen dira haren helburuak?

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebil-

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean erizaintzako profesionalek farmakoak agintzeari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatean erizaintzako profesionalek farmakoak agintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Erizaintzako profesionalek aspaldi eta aldiro egindako erreibindikazio bat da haiek farmakoak agindu ahal izatea. Gobernu-akordioan jada jasota ageri zen medikamentuak eta osasun-produktuak agindu ahal izateko baimena ezartzea, RO 954/2015 araudi nazional berriarekin bat.

Nafarroako Foru Komunitateko erizaintzako profesionalek noiz eta zer baldintzatan agin ditzakete farmakoak?

Iruñean, 2019ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, Aurizko Bunkerren Ibilbideko bisita-zentroari buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztutako galdera, Aurizko Bunkerren Ibilbideko bisita-zentroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urtiaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurizko Bunkerren Ibilbideko bisita-zentroa utzita eta abandonatuta dago gaur egun, eta horren ondorioz ez dago batere jarduerarik bertan.

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartzeko asmoa du egoera hori konpontzearen?

Iruñean, 2019ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

Galdera, Siemens Gamesa enpresan 109 kaleratze iragarri izanari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, Siemens Gamesa enpresan 109 kaleratze iragarri izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak inolako harremanik izan al du Siemens Gamesa enpresarekin, 109 kaleratze iragarri ostean eta horrek Nafarroako plantillan izan lezakeen eraginari begira?

Iruñean, 2019ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Erripagaina eta Berrikuntzaren Hiria lotuko dituen pasabide bat eraikitzeke proiektuari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Erripagaina eta Berrikuntzaren Hiria lotuko dituen pasabide bat eraikitzeke proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako 2019rako aurrekontuetan 250.000 euroko partida bat gaitu zen, Eguesibarko Udalarekin hitzarmen bat egin zedin Erripagaina eta Berrikuntzaren Hiria lotuko dituen pasabide baten eraikuntza finantzatzeko.

Zer aurreikuspen darabilzue proiektu hori egiteaz?

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, genero indarkeriako kasuetan familientzako elkarguneak erabiltzeko modua dela-eta Arartekoak gomendatzen duen berrikuspena egiteko ekintzei buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, genero indarkeriako kasuetan familientzako elkarguneak erabiltzeko modua dela-eta Arartekoak gomendatzen duen berrikuspena egiteko ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zer urrats egingen ditu genero indarkeriako kasuetan familientzako elkarguneak erabiltzeko modua dela-eta Arartekoak gomendatzen duen berrikuspena egiteko?

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, LGTBI+ pertsonentzako berdintasun sozialeko politikak sendotze aldera Nafarroako Berdintasunerako Institutuak sortutako zuzendariordezari buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, LGTBI+ pertsonentzako berdintasun sozialeko politikak sendotze aldera Nafarroako Berdintasunerako Institutuak sortutako zuzendariordezari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak zer balorazio egiten du Nafarroako Berdintasunerako Institutuan zuzendariordezta bat sortu izanari buruz, LGTBI+ pertsonentzako berdintasun sozialeko politikak sendotzekoa?

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, jakitekoa ea Nafarroak zer parte-hartze izanen duen Europar Batasunaren Kulturarteko Erregioen Europako Sarean, xenofobiari aurre eginez gizarteratzea eta aniztasuna aldezte aldera.

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Nafarroak zer parte-hartze izanen duen Europar Batasunaren Kulturarteko Erregioen Europako Sarean, xenofobiari aurre eginez gizarteratzea eta aniztasuna aldezte aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroak zer parte-hartze izanen du Europar Batasunaren Kulturarteko Erregioen Europako Sarean, xenofobiari aurre eginez gizarteratzea eta aniztasuna aldezte aldera?

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Blanca Regulez Álvarez

Galdera, familientzako elkarguneei buruzkoa, genero indarkeriako kasuak direla eta.

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, familientzako elkarguneei buruzkoa, genero indarkeriako kasuak direla eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urriaren 17an, Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko lehendakariordeak Madrilen egin zen Berdintasunaren Konferentzia Sektorialean parte hartu zuen. Han jorratu zen gaia izan zen familientzako elkarguneei genero indarkeriako kasuetan dagokiena.

Zer lan egingen da genero indarkeriako kasuetan familientzako elkarguneei dagokienari buruz?

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebil-

Galdera, 2019ko uztailaren 8tik 2019ko abuztuaren 7ra bitarte AP-15eko Imarkoingo bidesaria kentzeak ekarri zuen kostuari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, 2019ko uztailaren 8tik 2019ko abuztuaren 7ra bitarte AP-15eko Imarkoingo bidesaria kentzeak ekarri zuen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du AP-15eko Imarkoingo bidesaria 2019ko uztailaren 8tik 2019ko abuztuaren 7ra bitarte kentzeak ekarri zuen kostuari buruz?

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, DAVID programari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, DAVID programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ia urtebete joan da DAVID programa abian jarri zenetik. Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du horri buruz, eta zer neurri ezartzeko asmoa du programa hobetzeko?

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Toki Ogasunen Funtsari atxikitako diruzaintzako gerakinari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari-que jaunak aurkeztutako galdera, Toki Ogasunen Funtsari atxikitako diruzaintzako gerakinari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapide-tzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adol-fo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan eta ahoz erantzun dakion:

Toki Ogasunen Funtsari atxikitako finan-tzaketaren gastuetarako gerakinak 63.384.848,44 euro zeuzkan 2018ko abenduaren 31n. Lurralde Kohesiorako Departamentuak aintzat hartu al du 2020rako erabil litekeela gerakin hori, Toki Azpie-gituren Plan berria izapidetzen den bitartean? Izan ere, diru hori Nafarroako Toki Entitateena da, eta ez Nafarroako Gobernuarena.

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, landa-eremuko zaharren artapenerako eredu experimental berriari buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, landa-eremuko zaharren artapenerako eredu experimental berri-ri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamen-tarioari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Zer helburu, epe eta aurreikuspen ezarri dira landa-eremuko zaharren artapenerako eredu experimental berria taxutu eta aplikatzeko?

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, Nafarroako Automobilismo Federazioak eskatu duen lehiaketa-ibilgailuen Azterketa Teknikoaren zerbitzuari buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Automobilismo Federazioak eskatu duen lehiaketa-ibilgailuen Azterketa Teknikoaren zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik lehiaketa-ibilgailuen Azterketa Teknikoaren zerbitzua eskaintzeko, Nafarroako Automobilismo Federazioak eskatu bezala?

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, Zizur Nagusiko irteeran, Iruñerako norabidean, gertatzen diren zirkulazio arazoei buruzkoa.

LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko galdera, Zizur Nagusiko irteeran, Iruñerako norabidean, gertatzen diren zirkulazio arazoei buruzkoa, Lurralde Kohesiorako kontseilari jaunak

erantzun dezan. Galdera 2019ko azaroaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, jakitekoa ea zer etxebizitza-aukera eskainiko zaizkien beren etxebizitzak utzi beharko dituzten Castejongo 38 familiei.

LURRALDE ANTOLAMENDUKO, ETXEBIZITZAKO, PAISAIKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKO-ETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean izapidetzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak erantzun

dezan, jakitekoa zer etxebizitza-aukera eskainiko zaizkien beren etxebizitzak utzi beharko dituzten Castejongo 38 familiei. Galdera 2019ko azaroaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/POR-00262).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, eskola-kontzentrazioaren ondorioz ikasleek eragindako gastuak finantzatzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, eskola-kontzentrazioaren ondorioz ikasleek eragindako gastuak finantzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 000158/2015 zenbakiko epaiak deuseztatu egin zuen, ordenamendu juridikoaren aurkakoa izateagatik, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Baliabi-

deen zuzendari nagusiaren 1005/2013 Ebazpena, azaroaren 26koa; eta arrazoia eman zien errekurtsioa aurkeztu zuten udalei, zeinaren bidez erreklamatzeko baitzituzten eskola-kontzentrazioaren ondorioz ikasleek eragindako gastuen zenbatekoak.

II. oinarri juridikoan hitzez hitz esaten da: "justuena izanen da udal guztiek laguntzea beren ikasleak dauden ikastetxeak mantentzen (...). Zilegi izanen da ikasleak zuzenean artatzen ez dituzten udalek hori borondatez egitea nahiz Nafarroako Gobernuak horretara hertsatu dituelako egitea (...). Bitartean, edo halakorik ezean, Nafarroako Gobernuak bere gain hartu behar du bere erabakiaren –erabaki arrazoizkoa, bai, baina alde bakarrekoa ere bai– ondorio zuzena dena".

Gaurko egunean, exekuzio-autoen bidez ordaindu dira 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteei dagozkien zenbatekoak, baina ez dago mekanismo automatikorik epaiak agindutakoari erantzuteko eta finantzaketa eskola-kontzentrazioak dauzkaten udalen gain erortzea ekiditeko.

Hezkuntza Departamentuak zer konponbide aurreikusten du egoera hori behin betikoz konponatzeko?

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, ibilgailu gidaridunen arloko estatuko legedia garatze aldera Gobernuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, ibilgailu gidaridunen arloko estatuko legedia garatze aldera Gobernuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu daitezten eta idatzizko erantzuna eman diezaien Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak:

Irailaren 28ko 13/2018 Errege-lege Dekretuak 16/1987 Legea aldatu zuen, konponbide bat ematen saiatzeko batik batik hiriguneetan planteatzen diren mugikortasun edo ingurumen arloko arazoei, eta ibilgailu gidaridunen errentamenduaren zerbitzua emateko baldintzak arautzeko, zehazteko eta definitzeko. Gauzak horrela, uste da autonomia erkidegoak izanen direla, beren lurralde-eremuaren garraio- eta mugikortasun-inguruabar zehatzak kontuan hartuta, modu efizienteagoan zehaztu ahal izanen dituztenak ibilgailu gidaridunen errentamenduaren zerbitzua emateko baldintzak, ezertan ere galarazi gabe hiri-mugikortasunaren

eremuan udalenak edo udalez gaindikoak diren eskumenak.

Hori dela-eta, eskumen-gaikuntza horren bidez, Nafarroako administrazio publiko ukituek zehaztu, garatu edo aldatu egin beharko lituzkete, aldi baterako edo behin betikoz, zerbitzu horri buruzko estatu-araudiaren zenbait alderdi, horretarako abiapuntu gisa hartuta Nafarroako taxiaren sektorea zerbitzu publikotzat jotzea, Parlamentuak 2018ko urriaren 26an onetsitako adierazpen instituzionalean egin zen moduan, interes orokorrekoa dela uste baitugu.

Halatan, eta arloan dauzkaten eskumenak baliatuz, Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek araudi berri bat onetsi beharko lukete ibilgailu gidaridunen errentamenduko baimen berriak ematea mugatzeko, Nafarroan daudenen kopuruaren eta taxienaren arteko proportzioa ez dadin handiagoa izan ibilgailu gidaridun bakoitzeko hogeita hamar taxikoa baino.

Hori ikusirik:

1.- Nafarroako Gobernuak zer jarduketa aurreikusten du ibilgailu gidaridunen errentamenduari buruzko estatu-araudiaren zenbait alderdi aldi baterako edo behin betiko zehazteko, garatzeko edo aldatzeko, abiapuntu gisa hartuta Nafarroako taxiaren sektorea interes orokorreko zerbitzu publikotzat jotzea, Parlamentuak 2018ko urriaren 26an onetsitako adierazpen instituzionalean egin zen moduan?

2.- Gobernuak araudi berri bat onesteko asmatan al dabil, ibilgailu gidaridunen errentamenduko baimen berriak ematea mugatze aldera, Nafarroan daudenen kopuruaren eta taxienaren arteko proportzioa ez dadin handiagoa izan ibilgailu gidaridun bakoitzeko hogeita hamar taxikoa baino?

Iruñean, 2019ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriaren behin betiko kostuari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriaren behin betiko kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako Gobernuak urriaren 30ean onetsi zuen unitate ertainen –zerbitzuen eta atalen– mailako antolamendua, joan den abuztuan Foru Administrazioarako onetsitako oinarriko egiturari buruzko dekretukoa.

Egitura berriari erreparatuta ikus daiteke 97 egitura berri sortu direla (departamentuak, zuzendaritza nagusiak, zerbitzuak, atalak...) Gobernuak aurreko legegintzaldian onetsitakoaren aldean, eta horrek beste horrenbeste izendapen ekarriko du. Hori guztia ikusirik, honako hau jakin nahi dut:

Zer kostu izanen du urtero (soldatak, oinarriko soldatak edo osagarriak) 4 kontseilari gehiago egoteak?

Zer kostu izanen du urtero (soldatak, oinarriko soldatak edo osagarriak) 4 departamentu berrietan 4 kabineteburu berri egoteak?

Zer kostu izanen du urtero (soldatak, oinarriko soldatak edo osagarriak) 4 departamentu berrietan kabineteko 4 idazkari berri egoteak?

Zer kostu izanen du urtero (soldatak, oinarriko soldatak edo osagarriak) 4 departamentu berrietan kabineteko 4 laguntzaile berri egoteak?

Zer kostu izanen du urtero (soldatak, oinarriko soldatak edo osagarriak) 4 departamentu berrietan 4 idazkari tekniko nagusi berri egoteak?

Zer kostu izanen du urtero (soldatak, oinarriko soldatak edo osagarriak) departamentuetan 11 zuzendaritza nagusi berri egoteak?

Zer kostu izanen du urtero (soldatak, oinarriko soldatak edo osagarriak) departamentuetan 14 zerbitzu berri egoteak?

Zer kostu izanen du urtero (soldatak, oinarriko soldatak edo osagarriak) departamentuetan 52 atal berri egoteak?

Zer kostu izanen du urtero (soldatak, oinarriko soldatak edo osagarriak) 2 erakunde autonomo berri egoteak (Nafarroako Kiroi eta Gazteriaren Institutua bikoizteagatik eta NAPI erakunde autonomo gisa eratzeagatik)?

Gobernuak zer aurreikuspen darabil departamentuetako egitura osoa osatzeari begira bulego berriak eratzeari dagokionez, eta zer kostu ekonomiko izanen dute bulego horiek?

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, elikagaien artisau-produkzioei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, elikagaien artisau-produkzioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Elikagaien artisau-produkzioei buruz, parlamentari naizen honek jakin nahi dut ea Nafarroako Gobernuak zer ekimen abiaraztea darabilen gogoan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 7an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

